


Juan Garmendia Larrañaga

Aita Manuel Larramendi-ren, etnologiazko zenbait gai



31



1988. Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – Donostia : Kriselu, 1988

1998. Aita Manuel Larramendi, Telesforo Aranzadi eta "Orixe"-ren etnologiazko zenbait gai : Iru itzalditan oiñarritzen dan idaz-lana / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Mitos. Etnografía.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 5). – Donostia : Haranburu Editor, 1998

2007

Aita Manuel Larramendi-ren, etnologiazko zenbait gai / Juan Garmendia Larrañaga ; azala Yulen Zabaleta "Yulen". – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 17 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 31). – ISBN: 978-84-8419-094-3

Azala

Yulen Zabaleta "Yulen"



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

Aita Manuel Larramendi-ren, etnologiazko zenbait gai

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak

Aita Manuel Larramendi 3

AITA MANUEL LARRAMENDI



P. Manuel de Larramendi. (Andoain. 1690 - Loyola. 1766)

Aita Manuel Larramendi

Aita Larramenditzaz. nere gaurko urratsak nundik nora ibiliko dira? Emen aurkezten dizkizuet Aita Larramendiren lanak; auek dira gaiak, bir-ikusiko ditugu, besterik ez?

Ontarako naikoa dugu liburutegi batera urbiltzea, liburua edo liburuak gureganatu, eta kitto.

Au onela ikusirik, ba, nik ikutuko ditut, gaiñetik eta axalez, Larramendik aipatzen ditun zenbait gai, eta gai auetaz idatziko det, neronen ikuspegi eta ikerketaren barnean. Eta au azpimarratu nai det, argi ta garbi.

Nai au betetzeko, bere gidari Corografia de Guipuzcoa izena daraman liburua izango da geienbat, nere ustez egokiena ikusten detelako.

Larramendik aipatzen digu ura. Burni-olen arazoa gerorako utzirik, ura geografi maillako gaia dela esango genuke; baiñan ur au zergatik ez nere errotara ekarri, iñori kendu gabe?

San Juan Bataiatzaille goizean erreka guztiak bedeinkatuak direla, Leaburuko baserri baten entzun nuan.

San Juan goizean, eguzkia atera baiño leen, eguna zabaldu aurretik, eguntxintan, egunsentian..., erreka joaten ziren Irañeta, Ezkaroz, Nabaskoze, Kanpezon etabar. Ullibarri Aranan, oitura oni *tomar la sanjuanada* deitzen zioten.

Por la mañana de San Juan
Cuando la zorra madruga
El que mucho vino bebe
Con agua se desayuna,

abesten zuten Arabako urixka ontan.

Uretan bustitzen ziren, arpegia batez-ere, larrua garbi egon dedin edo garbitu dedin.

Goizean bereala ualdia fan eta betartia garbi Ezkarozen entzun nuan. Kanpezoa amona zar batek onela esan zidan:

Las mozas que se mojaban la cara en estas aguas, antes de la salida del sol en la mañana de San Juan, contaban con la seguridad de conservar la cara guapa para todo el año.

Después de los ríos y mares de Guipúzcoa –esaten digu Larramendik– *tienen en su lugar las fuentes. Kilimon* izena daraman iturriatzaz luzaro mintzatzzen zaigu Andoaingo jesu-lagun au.

(...) Pero las hay en grandísima abundancia de aguas claras, delgadas, ligeras, de manera que, en tanta extensión de montes y caserías que están distantes del lugar no tienen sus habitantes que bajar a los pueblos y a sus caños y fuentes por agua, pues la hallan todos en sus montes y laderas. Una excepción sola he encontrado, y es en la montaña de Uzturre, o Izazcun, pegante a Tolosa, en cuya belleza y devotísima ermita de Nuestra Señora de Izazcun recoge la serora en aljibe agua llovediza a tiempo oportuno por no haber fuente en aquella alta cima y ser muy pendiente y penosa la cuesta para bajar a Tolosa. Y aunque llovediza, pero reposada en el aljibe, es agua buena y saludable, y lo sé por experiencia.

Mendi gailurrak gutxitan ikustatu ditut, baiñan Izaskungo elizatzotik bideak beera eta goora irtentzen dira. Eta goraxeagoan, leku izkutu xamarrean, Uzturre bidean, arkitzen da iturri bat, Larramendiren denboran ur au onela ez bazan gozatzzen ere.

Gure arira itzuliaz esango dugu Iturriotzeko iturria ez dela aaztuta gelditzen Larramendiren ekintzan. Iturriotz, Baliarrain eta Igantzi ezagunak ditugu San Juan inguruko iturri aipamenetan. Baiñan nik esan bearra det, Baliarrainen, izenez gaiñera, San Juan izena daraman iturria, noski, ezer berririk ez dedala arkitu. Baiñan bein da berriz errepikatzen da iturri eta ur au, ez nundik eta ez andik jakin gabe.

Aipatu besterik ez bada ere, ez ditut ixilduko Donamariako *Ganbo-ura*, Ezkurrako *ur-gorria*, Comunion izena daraman arabar urixkako *San Juan iturria*, Ullibarri Aranako *Mari iturri*, etabar., denak San Juan goizarekin arerama izan dutenak, batzuek oitura berezi eta aberatsekin.

Bale eize edo arrantza ez du txokoratzen Larramendik.

(...). Espónjase la bestia, entra en el cristalino cerco; pero hácenle mil suertes, acéchanle, espéranle y, apenas se descubre, cuando herida del arpón se hunde, dando un grito espantoso, y deja el campo libre al marinero.

Oraingoz urbildu gaitezen itxas ertzera, lurrera. Aotu det *arpoi* itza, eta ezagutzea izan nuan sutegei bat arpoiak, aingurak, etabar lantzen zituana. Deban arkitzen zen lantegi au eta azken errementarixa Fermin Odriozola Urmeneta zana genduen.

Larruzko mantala erabiltzen zuan, sutegeiko kaldari alde egiteko. Bere aurrekoek, berriz, atorra eta galtza linuzkoekin jazten ziren, bertako eulien

eskuetan ibili ondoren. Aipatutako Odriozola errementarixak bi eule ezagutu zituan Debako irian.

Bere lanerako bearrezkoak izan zituan sutegia, auspoa, maixa, maieko tornua, maillukia, tajaera, txingurea, etabar.

Batek baiño geiagoek idatzi digute itxas-gizon aien ekintza eta goraberak, baiñan errepikatuko det, Larramendiren etnologi lana oiñarri artuaz, nere ikerketaren barnean ibiliko naizela. Beartsu, baiña nere makuluekin.

Urakin nere errota pittin bat ibili bada, aizea aipatuaz gauza bera zergatik ez egin? *Korputz txarra, aizetsua* esan oi izanda. Au persona kaxkar edo kokor xamarra iltzen danean. Au onela, erri baten baiño geiagoetan entzuna det, aize zakar eguna dala ta: *Letradu zarren bat garbitu dek*.

Larramendik aipatzen ditu meatzak. Gure meatzak burdin olekin uzartuak. Eta adierazi dezagun gure errekek zikintzea eta gertakizun ontaz udalgizonak kezkatzea ez direla gaurkoak.

M.N y M.L. Provincia de Guipúzcoa

Marcos de Jauregui, Alcalde ordinario de la Noble y Leal villa de Ichasondo, y procurador juntero de la Unión del Río de Oria. Dice, que por la frecuencia con que de las veneras de Mutiloa se arroja la tierra al río principal llamado Oria causa notable perjuicio a la dicha villa y a otras repúblicas por que lo más del tiempo corren las aguas tan turbias y de mala calidad, que apenas pueden lavar la ropa ni pescar en el tiempo permitido, y este embarazo se experimenta hasta la villa de Usurbil por donde entra a la varra de la N y L. villa de Orio (...). (1704 go. berria, *De Etnografía Vasca (Cuatro ensayos) El caserío - Ritosfúnebres - Galera del boyero - Las herrerías*), neronen liburutik artua. Liburu beretik jasoa:

El reparo del daño que hacen Cerain y Mutiloa en el río de Tolosa con sus veneras.

Este día -17 de noviembre de 1623-. La Junta confirmó el decreto de la Junta pasada de la villa de Tolosa en razón del daño que resulta en los ríos de las veneras de Mutiloa y Cerain (...).

Larramendik gogoan ditu belardi eta soroak. Nekazaritza. Bereziki aipatzen ditu linua eta garia, artoa eta arbia.

Ez da denbora asko kondairagille ospetsua izeneko batek, *ciclos de cultivo* dala ta amar bat minutuko naaste-borraste baten barnean erabili zela. *Cultura libresca* bakarrik izateak bai-baditu bere oztopo eta muga mozteak.

Esaera baten zuan gure gizonak bere adierazi naiaren giltza:

Orria erorte, garia egite; orria irtete, artoa egite, eta San Lorentzotan, arbia egite.

Eskoriatzan lan eta festa zan *liñugintza* izena zeraman billera. Arrunt neskek antolatzen zuten eta mutilleeri dei egin.

Neskak bere lan tresnakin soiñu berezi neurkatua atereaz, doiñu oni abestuz laguntzen zioten.

Festaldetik, etxeko neskak ogia jartzen zuten, eta esnea, kanpokoak. Mutillek, ardoa. Jolasketa onek arratsean zuan asiera eta gabez amaitu. Batzuetan izaten zuten panderoa, musukitarra edo akordeona, bestela, abestuz, dantza. Eta azken-azkenean, neska-laguntzea.

Baserri giroan gogoratuko ditut *Galapaixa*, soroko lanak amaitzean egiten zan afaria. Afari au senideen artean ospatzen zan, eta onela bear bazan, soroko lanetan laguntza ematen zutenengana edatzen zan (Bergaran, Elo-suko auzotegian).

Arratsaldez garoa biltzen aritu zirenei ematen zitzaaien afariek, *garo-etztaiek* zuan izena.

Garoa ebaki edo ebateko igitaie erabiltzen zuten, artean ez baitzen asko sega erabiltzen.

Garo-etztaiek ospatzen zituzten taldea neskamutillez osatua zan. Kopurua ez zen beti berdiña izaten, baiña ia beti erri bereko auzoek osatzen zuten. Afaltzea akordeoilari bat gonbidatzen zuten. Deskribatu dudau au 1900 urtean kokatu liteke (Elduaiengo errian).

Nekazari-urixka inguruan, *albokea* datorkit burura. *Albokea* deritzaio erritik kanpora denboraldi baten egon ondoren itzuli eta eskaintzen duen janari opariari. Baiña zera geitu bear dut: Abaltzisketako errian, joan zan mendearen amaieran eta oraingoaren asieran, *albokea* izena ematen zitzaiola indianoak bere aurrekoen etxera itzultzean, errikideei plazara ateratzen zien zagi-ardoari.

Layarik izenarekin deituak ziren layan jarduntzen zuten taldekoak, Errezilgo urian.

Larramendik aipatzen du laya. Gure sutebietan lantzen ziren lanabes auek bi motatakoak ziren: ortz edo anka luzekoak, eta, besteak, anka motz eta zabalak, kirten luzeagokoak, Napar aldean batez ere ikusi izan ditudanak.

Larramendik artoari egiten dio oroitzalditxo bat eta guk artoakin taloa gogoratuko dugu. Talo burnie, talola eta talomantenua beste tresna batzuen artean, talogintzan arrunt erabiliak.

Sagarraren garrantzia ikusteko, zerrenda au naikoa dugu:

1051. Busturia: «cum suas terras et piscarias et arbores pomiferas.»

1053.S. Agustín de Echebarria (Elorrio): «terras et mançanares agros et campos.»

1053. Bermeo: «Kasas et terras et manzanares et pomares.»

Garmendia Larrañaga, Juan: Aita Manuel Larramendi-ren, etnologiazko zenbait gai

1070. Gorritiz: «illos palatios de Madariaga, cum omni pertenentia, terras et mazanares.»

1070. Mundaca: «cum suas terras cum suos maçanetos, in aquis in pascuis.»

1071. Mundaca: «cum terris et maçanetos, cum aquis et pascuis.»

1072. Yurreta: iglesia de San Martín «cum terris, ortis et pomiferis arboribus.»

1075. Orduña: «et in valle de Urdunia in totas villas suos manzanares.»

1082. Ugarte, «in termino Bizkaie»: «cum introitu et regressu, terris, ortis, pomiferis arboribus.»

1091. Astigarribia, «inter Bizcahiam et Ipuzcuam sito»: «cum pascuis et montibus et mazanetis.»

1093. Alboniga: «cum terris, ortis et pomiferis arboribus.»

1101. Pubeia: «in territorio Samano (Castro Urdiales)»: «cum propria hereditate, terris, pomiferis.»

Aipamen auen iturria: Andres E. de Mañaricua: *Vizcaya, Siglos VIII al XI. Los orígenes del Señorío*, 252 eta 253 orrietatikan.

Larramendik aipatzen digu gaztaña. Orain adieraziko det onen garrantzia gure nekazari etxeetan, gertaera batekin.

XVIIIgarren mendeko *matxinada*, 1766 garrengoan ain zuzen, iraultzaillen edo matxinoen eskeetako bat gaztañen amarrena edo *diezmoa* kentzea izan zen.

Ura eta sua belaunetik beera, dio esaera batek.

Gai zabala eta aberatsa benetan suarekin ar-eman duana. Langintza batzuetan, ez gutxietan ere, bearbearrezkoa, eta jai eta ospakizun asko suaren inguruan, suaren berotasunean igaro dira, aintzin-aintzinatetik.

Aita Larramendik ematen dio, nola ez, bere garrantzia suari:

(...) Guipúzcoa es país del fuego (...). Es país del fierro, en que se labra el mejor del mundo a violencias del fuego (...),

adierazten digu Larramendik, beste gogorapen askoren artean. Gure oletzaz mintzatzen zaigu, bai mendietako *agorrola* izenarekin ezagutuak izan zirentzaz, eta, baita ere, aldaketa edo eboluzioaren barnean uraren indarrez ballaturik, erreka ondoan eraiki zirenak. Lantegi auetan berezitzen ditu aundienak eta txikiagoak edo *olatxoak*. Oletzaz luzaro mintzatzen da, beraien gora-beerak ezaugarri ematen digu.

Zertan datzan lantegi aiek, izen zerrenda interesgarriakin: *gabiardatza*, *maisukariak*, *gezuraska*, *ond-aska*, eta abar luze bat.

Etzeukan azturik Pedro Bernardo de Villarealen *Máquinas Hidráulicas de molinos y herrerías y gobierno de los árboles y montes de Vizcaya* izena daraman liburua. Lan au dela ta, onela idazten dio andoaindar ospetsuak aipatu-tako liburuaren egilleari:

(...) le deben a V. md. mil gracias y elogios, que desde su retiro ha sabido con gloria y lustre de estos montes, dar una biga a la reponpa afectada de los Matemáticos, que siempre enseñan y nunca ejecutan y así uno y otro... (Libur-un sarreratik artua).

Bi gizon auek ogei urteen aldea zuten, Pedro Bernardo zaarragoa (1670/1740), (1690/1766).

Larramendik burdin langintzan eta olagizonen bizimoduan begiek ezar-tzen dituanean, Mogelen Peru Abarka gogoratzen zait, au ere XVIII garren gizaldiko gizona (Eibar, 1745/1804).

Nolanai ere, Larramendik, burniari eta burniaren inguruko eginkizunari, garrantzi aundia ematen dio. Bera ere, pertsonalki, ekintza auetako batzue-tan barnean bitzia bai zan.

Lan astuna, ola aietako lana, *Olatikan beñere berri onik ez*, adierazten digu aintziñako esaera batek.

Baiñan, dena esan bearra dago, olagizon aien lapikoa etzan exkaxa. Onela, *ola-atsua* izenarekin ezagutzen zan emakume aragiz aberatsa, Atau-nen. Pilar Barandiaraneri entzutea izan nuanez, itz-aspertu baten.

Neroni ere, burni gai auetzaz idatzia naiz, bein baiño geiagoetan. Idatzia eta mintzatua.

Baiñan uste dut aurrera jarraitzea izango dugula onena eta egokiena.

1739 an, Juan Fermin Gilisastik aingura aundie landu zuan, ordurarte Holandatik gureganatzen genduana, bere Ayako Arrazubia izena zeraman olan.

Gilisasti onen bizitzak izan zituan gora-berak, ez gutxi eta txikiak. 1752 garrenean Erregeak izendatu zun Aingura-Begiratzaillea *-Inspector de Anclas*.

Gauzak onela, eta Hernaniko olekin egindako ongudea edo asientoa eztabai-datzeak direla ta, an ikusten dugu gure aita Larramendi iskanbillaren barnean.

Historia horrenda sobre el Asiento de anclas.

Un tomo entero no bastaría para contar la historia del Asiento de anclas en Hernani con el rey, esaten digu Larramendik. Habiale tenido diez años el Inten-dente, haciendo Compañía con su suegro y Joan Fermín, maestro ancorero: y a

nombre del Rey destruyeron a todos los dueños de las Herrerías de la costa y a sus ferrones y gente sin número que se mantenía a título de ellas, con poquísimas utilidades del Rey y provechos increíbles de los del trato.

Etabar luze bat.

Gaztelenez irakurria, Tellechea Idigorasen *Autobiografía y otros escritos. Obras del Padre Larramendi*, izena daraman liburutik artua det. Lan interesgarria au *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones*-ek argitaratu zuan.

Ekonomi gaia ezta nere oraingo eginkizuna, ezta nere betebearra. Baiñan esan bearrezkoa det gure ontzigilleen, gure astilleroen gertakizuna mingarria izan zitzaiola Larramendiri.

Sacar los astilleros de Guipúzcoa ha sido sacarlos de su nativo centro, donde y en sus cercanías han estado siempre.

Esto es lo que han alabado y protegido ciega e injustamente unos ignorantes presumidillos, que atendidos del Ministerio lo han engañado malamente, con ruina de la hacienda real (...). Estos presumidos son los que nos han querido engamar voceando y escribiendo que el inglés fabricaba por geometría sublime, por estática y por mecanismo voces que si las entiende alguno de ellos es para lucirlo en conversaciones de barahunda y para hacer en seco demostraciones en su gabinete, no para reducir las a práctica y ejecución, dio Larramendik.

Betiko leloa, beti gauza berdintsuak entzun, irakurri eta bizi.

Ontzigille maillan, gure berri zaarrenak, konkretoki, noski, Be Erdi Arokoak ditugu. Beste arlo batzuetan ere berdintsu gertatzen bai da.

Naparroako Santxo Jakintsu erregeak Donostiari Forua ematen dionean, 1180 garren urtean, itxas inguruko ekintzak ez ditu baztertuta uzten.

Amairu garren mendean, Bonifaz itxasagintariarentzako ontziek prestatu ziren Santander, San Vicente de la Barquera, Portugalete, Getari eta Pasaian.

Gure berri zaarrenak arraun-ontzi eta belaontzitará garamazki. Aurrenekoek guda ekintzetara eta besteak salerostera. Baiñan Artiñanok ondo dionez, aipatutako ontzi auek denak bete bear jakin bateri errez iges egiten zioten.

XVI garren mendean, arraun-ontzik erabiltzen ziren saleroste eta guda ekintzetan. Ontzigille garrantzitsuenak Santander, Gipuzkoa eta Bizkaian arkitzen ziren.

XVII garren mendean ere, gure ontzigilleak euste zioten beren izen onari. Neronek ere ezagutu ditut, nai azkenetan izan, gure itxas-arotzen lantokiak. Itxas-arotzak, aintzin-aintziñako kutsukoak, beren eskuetan lan-tresnak erabiliaz.

Ontzigitza kontu aundiko lana da. Legepeko lana, eta lege auek, aurrerapenarekin bat-batean aldatzen joaten dira. Esan dezagun ere, itxas-arotzak maiz ibili dirala burrukan lege inposatutako oien aurka.

Adibidez, Getarin ezagutu nituan ontzigilleak, burni lana ta makina izan ezik, berak egiten zuten ontzi guztia.

Ez diot elduko ontzia egiteko langintzari. Baiña atal au amaitzeko bai adierazi ontziak uretaratze diranean, jai itxura artzen duala kaiak.

Jendea, berri au jakiñik, ontzitegi inguruan biltze da. Ontzigillea, korrika ta presaka jarduten da, lanal akabera ematen. Ontziaren gilla errez irixtatu dedin itxas-arotzak zulo-ziriari seboa ematen dio.

Famili aur baten bataioaren antzera, alaia izaten da lantegi auetan ontzi-ureratzea. Ontzi berri au, bein itxasoan sartzen danean, laister izango da eza-gun arrantzaleen artean.

Beren familiko bat geiago baliz bezala, izenez deituko diote. Eta bere gora-beraren berri ondo jakiñik egongo dira, gure kosta aldeko gizonak.

En todos los pueblos hay escuela de niños y casa destinada para enseñarles a leer, escribir y contar y doctrina cristiana, y maestros asalariados.

Ala jakin-arazten digu Larramendik.

Emen oart-araziko dizuet urixketan arrunt izaten zela sakristaua eta mai-xua persona bat izatea.

Ikus dezagun auetako agiri bat:

Ilustre Ayuntamiento de este lugar de Berrobi y Junta de Fábrica de la Iglesia parroquial del mismo.

El que suscribe a VV.SS. atenta y respetuosamente expongo: Que en pueblos pequeños, o sea, en pueblos que son, poco más o menos, idénticos en vecindario a este de Berrobi, se agrega generalmente el cargo de Sacristan a los demás cargos que ejerza el Maestro del pueblo, arreglando y señalando una remuneración módica, una remuneración regular, es decir, un auxilio, un alivio que, en unión con los emolumentos, sea adecuado, sea suficiente o necesario para llevar la sujeción que imponga el referido cargo de Sacristán, y pagando, bien en metálico o bien en especie, o bien, parte en metálico y parte en especie; pero veo que en este pueblo no está arreglado y señalado lo que queda indicado, y en su consecuencia, me encuentro, como Sacristán, sin auxilio o alivio suficiente o necesario para llevar la sujeción que me impone el citado cargo, pues si se coteja, si se compara mi remuneración, en concepto de Sacristán, con la remuneración que en tal concepto, tienen los Maestros de otros pueblos que son, poco más o menos, iguales en vecindario a este de Berrobi, se conocerá y se verá palpablemente que la mía es muy exigua, muy escasa, en comparación de la de ellos, porque solamente tengo el auxilio de los emolumentos

Además debo exponer a VV.SS lo siguiente:

1. Que mi esposa viene barriendo semanalmente la iglesia y el atrio de la misma, sin gratificación alguna.

2. Que si acaso conviene que mi esposa tome a su cargo la limpieza, planchado, etc., de las ropas de la Iglesia, está conforme para tomarlo, con tal que se asigne una cantidad suficiente o necesaria para ese objeto, y

3. Que si quiere el vecindano que se toque a hora fija la campana llamada del alba, se tocará a la hora que le convenga al vecindario, según las épocas del año; pero para eso quisiera que se coloque una cuerda o alambre desde la torre de la iglesia al desván de la Casa Concejil (seguramente buscando comodidad, digo yo), si no bay algún inconveniente para ello.

En atención y consideración a todo lo expuesto, no puedo menos de recurrir a VV.SS. suplicándoles que tengan a bien de disponer lo que estimen conveniente para el arreglo y señalamiento de una remuneración que en unión con los emolumentos, sea suficiente o necesaria para llevar la sujeción que me impone el mencionado cargo de Sacristán, asignando y fijando al propio tiempo lo que se me ha de dar en los entierros.

Dios guarde a VV.SS. muchos años

Berrobi 8 de Marzo de 1884

Firmado: Pedro María Aranceta, rubricado. (Archivo Municipal de Belaunza. En hoja suelta).

Larramendik adierazten digu:

En las más de las villas hay médicos, barberos, cirujanos, boticas y boticarios

Nere txartel edo fitxetako baten aipatzen da Tolosako *Botica zarra*, XVI garren mendean, eta badet *Sorroneneko* botikaren itun baten kopia, 1795 garren urtekoa. Baita ere argitaratua det (nere *Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco* izena daraman liburuan) sendagille/zirujano eta bizargintzaz idatzi bat, 1584 garren urtekoa.

Larramendiri irakurzen diot:

Hay casas de Ayuntamiento o casas de Concejo en todos los pueblos (...). En estas casas están comunmente los archivos y las armerías, donde están guardados los fusiles, bayonetas etabar. Todo esto es a costa y de cuenta de cada pueblo, así para los alardes, que deben hacerse cada año (...).

Emen gogoratuko dizuet gure egunetan aaztua dugun azalpide bat, Larramendik ere aipatzen ez duena.

Doy en data 224 reales de vellón pagados por el gasto del día de Alarde y pólvora.

Item veinte reales vellón pagados a Ignacio de Echeberria, por su mejor tiro.

Ez aaztu au: *por su mejor tiro*. Gauza etzan ba, gure egunetako folklore ikuspegi festa bat bakarra (Berri auek 1796 goak dire, Elduayengo Udal Etxeko Artxibo apal batetik jasoak).

Larramendi ta Foruk, Lege Zarrak. Gai au egiztatu da bein da berriz.

Larramendik aipatzen ditu bere garrantzia emanaz, Probintziko Biltzar Orokorrak eta baita ere, nola ez, bere partaideak.

Gipuzkoako Foruetan:

No pueden ser procuradores y junteros los abogados (Título VI, Capítulo 14); y da la razón, entre otras, porque como se ve, las veces que vienen siempre levantan discordias y pleitos por se aprovechar (...).

Egun aizetsua dala ta, oartu gaitezen egindako esakizunatzaz: *Letradu zarren bat il dek.*

Elizeko gaien ar-emanetan, Larramendik gogoratzen ditu amarrenak. Elizgizonen egoera kaxkarra salatzen du, zaindaritza edo patronatoak direla ta.

En esto, en muchos de ellos, hay graves descuidos, pues desatendiendo a esta obligación y al fin santo por que se dan los diezmos, o los llevan todos, o dejan tan poca parte de ellos para los beneficiados, que murieran de hambre si la piedad de los pueblos no les franqueara de qué vivir, en entierros, honras y otras funciones.

Amarrenak, Erdiaroan izan zuten beren sortzea. Tolosan ezagutu nuen *amarandegi* izenarekin deitua zan biltokia, Santa Maria eliz-parrokiko albo baten.

1817 garrengo abenduaren bosteko agindu batek onela dio:

Porque nuestro Señor en señal de universal señorío retuvo en sí el diezmo, y no quiso que ninguno se pueda excusar de lo dar; y porque los diezmos son para sustentamiento de las Iglesias, Prelados y Ministros de ellas, y para ornamentos, y para limosnas de los pobres en tiempo de hambre, y para servicio de los Reyes y pro de su tierra, y de sí cuando menester es; y a quien bien y de grado lo paga acreciéntale Dios lo temporal, y dale grande abundancia de todos los frutos, y salud al ánima. Por ende mandamos y establecemos para siempre jamás que todos los hombres de nuestro reino den sus diezmos derecha y cumplidamente a nuestro Señor Dios, de pan, y vino, y ganados, y de todas las otras cosas que se deben dar derechamente, según lo manda la Santa Madre Iglesia (...). Y otrosí mandamos y tenemos por bien que todos los Obispos y la otra Clerecía den diezmo derechamente de todos sus heredamientos y de todos los otros bienes que han, que no son de sus Iglesias (...).

1837 garrengo uztailaren 29 ko lege batek, amarrenak kendu zitun, paperean beintzat. Lege onen betetzea oso pixkanaka lortu bai zan, beste arlo askotan bezela.

Larramendiri irakurtzean, gaiñetik eta axalez, amarrenak direla ta gogoratu dira eriotzak berarekin dakarzkina elizkizunak:

o dejan tan poca parte de ellos para los beneficiados, que murieran de hambre si la piedad de los pueblos no les franqueara de qué vivir, en entierros, honras y otras funciones.

Orain, Tolosako oitura bat bururatzen zait: *Bost festa* izenarekin ezagutuak ziren Berpizte eta Maiatzeko Bazkoak, Abuztuko Amabirjin, Santu Guztiak eta Eguberri egunak.

Eguberri eguneko oparia edo ofrendatik eresmaixuak, koruko tenoreak, abots-lodidunak eta sakristauak, launa ogi artzen zituzten, eta beste aipatutako festetan, erdiarekin gelditzen, biña ogikin. *Elizeko xaguek, elizetik jan bear dutela*.

Beste erri batzuetan, berriz, *bost festa* izeneko auek aldatu egiten ziren, zerbait beintzat.

Adibidez, Berastegin, San Martin (eliz-parrokiko patroia) sartzen zuten bosteko ontan, Jasokundearen ordeztan.

Seroratzaz luzaro mintzatzen zaigu gure Larramendi, beste idazle ta ikerlari batzuen antzera: Henao, Webster, Arin Dorronsoro eta abat.

Entrar a *serora* es tomar estado en Guipúzcoa, lo mismo que entrar a ser monja, *dio Larramendik* (...). Su ministerio es atender a la decencia y limpieza de la iglesia (...). Cuidar del ceremonial particular de las mujeres en entierros, funerales, procesiones y otros actos de la Iglesia

Gai ontaz, neronek arkitutako agiri baten zatitxo txiki-txiki batez baliatuko naiz. Ituna Berastegikoa da eta onela dio:

(...) a catorce días del mes de junio del año de 1738, ante mi el escribano y testigos (...).

Primeramente que a dicha Josefa de Echegoién serora actual y sus sucesoras de aquí adelante perpetuamente le hayan de corresponder en cada un año dichos señores del cabildo, de los trigos que se recogieren en el Diezmo que les toca en esta villa (..).

Item asimismo en el Diezmo del fruto de castaña que en cada año hubiese en esta dicha villa y su jurisdicción (...).

Item que además de los referidos frutos, dichos señores del cabildo les hayan de asistir y acudir de adelante por sí o por sus amas que tienen y las tuvieren en adelante, a dichas seroras y sus sucesoras, con los emolumentos que abajo se dirán y que son los siguientes:

Lo primera en las cinco fiestas principales de cada año, un pan grande de peso de tres libras, que llaman pan del año (...) y además de ellos la sexta parte de toda la cera que se recogiere en uno con el dicho pan que se ofrece por las mujeres en la ofrenda (...), y en los días Domingo y Lunes de cada año, un pan de dos libras y a una con ocho bodigos ordinarios, y en las fiestas de entre semana sólo los ocho bodigos ordinarios (...), eta abar.

Item que dicho cabildo (...) los haya de asistir y acudir con los cuartillos acostumbrados, por tañer campanas a difuntos (...), eta abar.

Segora artoa deitzen zitzaion famili bakoitzak urtean serorari ematen zion artoari. Azaroan, bi lakari.

Berdin, famili bakoitzak ematen zion gariari, *Segora garie* izenez ezagutzen zan. Abuztuaren azkenaldean, bi lakari. Berri auek Beasaingo Garin auzoan ezagutuak ditut.

Berastegin, elizkizunak amaitu ondoren, serorak jendea zimitorioan bil-tzen zun eta esanez: *Konpani ontatik aurrena faltatzen dan animen izenean*, bereala bi Aitagure errezatu. Bat ildakoen animarentzako eta bestea an arki-tzen zirenetatik aurrena ilko zanarentzako.

Larramendik egiten dio esku-langillari goretzia, argi eta alai, aldarte one-narekin, beste, eta besteen, jokaera batzuek salatuaz.

El señor alcalde, sastre, para servir a Vd. El señor regidor, zapatero, para servir a Vd. El señor fiel, sindico, procurador, carpintero, para servir a Vd.

Nere ikerketaren ekintzak esku-langintza ez du txokoratu, eta, giro onen inguruan eta ar-emanetan idatzia det *Gremios, oficiosy cofradías en el País Vasco* izena daraman liburua, beste batzuen artean. Baiñan gai auek sakon-tzea nere idatzi onen eskemari iges egiten diote.

Jarrai dezagun bideari.

No hay provincia donde se practique más caridad con los peregrinos y pobres como la de Guipúzcoa –oartzen digu Larramendik–, así en los hospitales que son tantos como lugares y villas, como en las caserías, donde reparten de su cena y comida con los pobres que allí se acogen (...).

Baiñan gauzak ez ziren gertatzen ain garbi eta argi. Gogoratuko det 1747 go. azaroaren 9 ko. lege batek ermitau batzuen geiegikeriak salatu eta era berean zuzentzea lortu nai zuala.

Beste orrenbeste esango dizuet Jainkoaren izeneko edo eskaletzaz. 1771 garrenean, Gipuzkoako probintziak arautu zituan eskale gertakizunak eta geiegikeriak. Idatzi au ere interesgarria dugu.

Larramendi gizon kezkatua dugu, era berean, berriz, leiala eta alai. Bere irudia egoki uztartzen zait jostaldi eta festekin. Eliz gizon batek berarekin ditun,edo izan bear ditun, mugan barnean, noski.

Etzan zezen zalea, bainan aitortzen du gure zezen festaren zaletasuna:

y es tal y tan grande esta afición (la taurina), que, como se dijo por chiste de los de Salamanca, si en el cielo se corrieran toros, los guipuzcoanos todos fueran santos por irlos a ver en el cielo.

Toriatzaille gipuzkoar baten berri ematen digu, Chambergo izenez ezagutua.

XVIII garren mendean –Aita Villasantek, *Historia de la Literatura Vasca-n* dionez–, oiartzuar jesulagun zorrotz zan Sebastian Mendiburuk maiz eraso oi zion errien jolas oiturari. 1748 an, Asteasuko Udalari arren eskatzen zion zezenketak erabat debekatzeko.

Beterriko erri au aipatu dugunez, Kontseju-etxea 1760 an idekiberri jaietako, Juan Bautista Iraola tolosar toriatzailea eraman zutela Sarapio Mugicaren *Monografía de Asteasu*-tik artuta, berri au ematen det nere *Inauteria. El carnaval Vasco* izeneko liburuan.

Bestalde, 1549 garren urteko berriak baditugu Tolosan, San Juan jaietako zezenketaz (Udal Artxibotik jasoa).

Iñauteriak aotatzen ditu Larramendik:

Hacen cien locuras y tontadas (en Carnaval), aunque ya se van corrigiendo de lo mucho y malo que había antes.

Larramendik etzitun ezagutu neguko ospakizun auek, ez bai zitun bizitu. Mozorrotuaren barnean onen egoera bera bizituaz bakarrik sartzen bai da. Dena dela, eun tontokeri eta erokeri ez dira asko, gure egunetarako.

Los juegos en Guipúzcoa son, en los chicos, trompa o trompo (...),

esaten digu andoaindar jesuitak. Emen oroituko ditut Arabako Kanpezon ezagutzea izan nituen lantegitxoak. Eskulangille aiek txirrikeros izenekoak, eta beste gauz askoren artean Larramendik aipatzen ditun trompa edo *zibak* lantzen zituzten. Egun, eskulangille aiek denak izkutatuak dire.

(...) y rayuela, que llaman *toca*, *bolinche*, una especie del mallo que llaman *anicote*, unos de un lado y otros de otro con los palos de porra (...), con que sacuden a una bolita o pedazo de madera y los contrarios se lo vuelven a golpes y ganan el tanto los que a pesar de la oposición pasan la bolita al término señalado.

Joku onen berdintsuak ez dira gutxi. *Txirikilan* (Apatamonasterio, Eskoria-tza); *txintxiketan* (Orexan) *ganbotxo* (Arrizala, Narvaja, Oreitia, etabar).

Txirikolie (Aramaionan), *katuzil* (Burgin) etabar aberats bat.

Arlo onen inguruan, kartaren jokua edo denborapasatzea ez dugu aaztuko, *mus* izenekoa bereziki aipatuaz.

1755 garren urtean, Baionako maestro naipero bezela agertzen zan Carlos Requiran-ek, Donostian kartak egiteko lantegi bat irikitzeko baimena lortu nai zuan.

Eskabide au eztabaidatua izan zan, bertako Errukietxean lantegi berdiña arkitzen bai zan, eta emen zetorren alkarrekiko leiaketa, zorion edo txarreko kompetentzia.

Beste berri bat kartakin zer ikusia duana ezaugarria dugu. Oiartzungo Eliz Parrokiko Artxiboan jasoa det:

Senor Vicario:

Los infrascritos señores Alcaldes –Oyarzun– suplican a V.M. se sirva dar a entender al auditorio al tiempo del ofertorio de la misa popular, que sus mrzdes. han tenido repetidas quejas de los desórdenes que ocurren en los tres barrios de Elizal-

de, Iturrioz y Alcibar, de resulta del juego de naipes en que se emplean las mujeres todos los días de fiesta y las tardes, por cuyo motivo proponen a injuriarse gravemente unas a otras de palabra y aun de obra y no contentándose con semejantes excesos suscitan quimeras con sus mandos y familia porque pierden los pocos cuartos que tienen para la manutención de su familia. Por lo que mandan sus mercedes que desde hoy en adelante se abstengan de jugar en cuadrilla en dichos barrios ni en plaza pública, como lo han acostumbrado hasta aquí, pena de un ducado por cada vez y dos días de cárcel. Hecha en esta villa de Oyarzun a 9 de Enero de 1773.

Que sus mercedes estarán en estas Casas Concejiles los días lunes, miércoles y viernes para efecto de oírles en audiencia verbal y no se les admitirá en otro día. Firmado: Manuel de Bengoechea, rubricado. Miguel Ignacio de Urdinola, rubricado.

Larramendi mintzatzen da pelota jokutzaz, denok ezagutzen dugun joku ontaz. Emen esango det, XVIII garren azkenaldean gure errietan jokatu zula Perkainek, ain izen aundiko laburdiar pelotariak. Ontaz ba det agiri konkretu bat, be-izena edo firma daramana.

Larramendik ematen dio dantzari, bear dun garrantzia. Gai ontaz ez-jakiña naiz. Ez naiz dantzaria, oraindik gutxiago ere bestek jotako danborraren doiñuarekin.

Danborra aipatuaz, ezaugarria iruditzen zait *Aprendiz de tamborrero y obra prima en Fuenterrabia* izena daraman ituna, berak onela dio:

En esta villa de Tolosa a dieciocho de marzo de mil setecientos noventa y nueve, ante mí el escribano Real y del número de ella y testigos, Martín José de Ontoria, vecino de la misma, dijo que tiene un hijo llamado José Donato, y ha determinado ponerlo en casa de Juan Miguel de Escamendi, músico juglar asalariado de la ciudad de Fuenterrabia, residente en ella, el cual combino en admitirlo por su aprendiz, y para que tenga efecto la vía y forma que más haya lugar en derecho cerciorado del que le compete: otorga que entrega dicho su hijo al mencionado Juan Miguel de Escamendi, por su aprendiz, a fin de que le enseñe los oficios que se expresarán en el tiempo y con las condiciones siguientes:

Que en el discurso de cinco años que complirán en dieciocho de marzo de mil ochocientos cuatro, mediante el expresado Juan Miguel, sabe también el oficio de tambor, le haya de enseñar perfectamente sin ocultarle cosa alguna de suerte que al fin de los cinco años este corriente y capaz en dicho oficio de tambor; y para que aprenda ha de poder corregirlo y castigarlo prudente y moderadamente, sin herirlo ni elisiarlo, pena de los daños, y si lo hiriere o maltratase ha de ser motivo suficiente para sacarlo de su poder.

Que además de ello ha de hallar el mismo Escamendi al referido José Donato en la indicada ciudad de Fuenterrabia, maestro de obra prima que en el tiempo prefijado de los cinco años le enseñe el oficio de zapatero perfectamente, sin ocultarle cosa alguna así de teoría como de práctica, de suerte que aplicándose esté capaz al fin de ellos para ser examinado, aprobado y ejercerlo por sí, sin intervención, documento ni dirección de persona alguna, y nada ignore de lo que a él sea concerniente.

Que será de cuenta o cargo de Martín José el vestido que necesitare su hijo Donato, a excepción del calzado, que lo será del de dicho Escamendi.

Y habiéndose enterado este último del contexto de esta escritura a toda su satisfacción: Dijo que recibe por su aprendiz al enunciado José Donato, y se

obliga a enseñarle el oficio de tambor con toda perfección, y a hallarle también maestro de obra prima que también le enseñe este oficio, en los términos suso asentados, y a observar este contrato y sus pactos en todo lo que le corresponde, sin la más leve tergiversación, a lo cual quiere ser apremiado por todo rigor de derecho (...)

(Tolosa. Artxibo Probintziala. Sorta 702-1800/1801 garren urtekoa, 71/72 orrietan.

Danborrarekin Samaniegon asto gizarajoa ere gogoratzen zait. Au pozez arkitzen omen zan berealako akabatzea –astoaikin, iltzea esatea egokigoa iruditza zait– sumatzen zualako, onela mundu ontako naigabe ta zamatik azke ikusiko zelakoan.

Baiñan usteak erdia ustela omen du, eta gure asto oni iltzeak etzion pakerik ekarri. Bere larru makildutakoa danborra biurtu bai zan, artzaiek dantza egin zezaten.

Corografía-ren atal bat onela izen-burutzen da: *De la costumbre de Guipúzcoa en entierros y funerales*.

Bere liburu berri-emantzale aberats ontan, eriotzaren inguruko oiturtazaz luzaro mintzatzen da Larramendi. Nik, gaiaren giro ondoan, nere arauaren barnean, egingo ditut, nola esango nuke, oartxo labur batzuek. Auekin amaituko dira nere lerroak. Eriotza eta amaitzea egoki uztartzen bai dira.

Eriotza, eta emen batez ere urixkako eriotzaz oroitzen naiz, erri maillan benetan sentitua izan da. Mendez-mende, oitura batzuek gure egunetaraiño iraun dute, eta azken urte auetan izan da erri bakoitzak bere nortasuna galduaz, batere aurrerakoia ez den aspergarrizko berdintasun baten sartzea. Dena, ori bai, aurrerakoitasunaren izenean. Baiña, erreplikatuko det, nortasuna galtzea ez dela, beñiere, benetakoa aurrerakoia bidean jartzea. Au ez aaztu.

Ildakoek bizi danak bezelaxe janaria eta argia bear dituela sinistean oiñarritzen ziren ofrenda asko, opari ugari.

Ikusi ditut opariak gauzaketan, eta ikusi ditut ere kandelak eta argizari gorrista edo zurituzko (argizari zuririk ez da:) erroilloak, lerro eta tamaiña desberdiñekoak, jarri eta piztu izan direnak elizetako zoletan, gaur egun sinbolikoak diren eta garai batean lurperatzeko erabiltzen ziren illobiak.

Ikertu ditut ofrenda bat baino geiago.

1787 ko apirillaren 3 ko zedula batean Karlos III-ak debekatu zitun elizbarrungo lur-emateak, agindua leku guztietan bereala bete ezpazan ere.

Bein baino geiagoetan illeta eta eorzketak ongi ornitutako maiaren inguruan izan dute amaiera. Gure Foruak eta Biltzar Nagusiek arduratu ziren geiegikeri auetaz. Gorosabelek esan zuan bezala: Los muertos enterraban a los vivos.